



## ■ HERNANI ERABAKI

### Aurreneko bilera gaur, Portun

Gaur hasiko da Udala auzoetan egingo dituzten errondekin. Aurreneko bilera Portuko auzo elkarteko lokalean dute, iluntzeko 19:00etan. ■

## ■ ESKELAK

### Iluntzeko 20:00ak arte jasoko dira

Eskelak eta urteurrenak jasotzeko ordutegia aldatu egin du Urumeako Kronikak. Gaurtik aurrera goizeko 08:00etatik iluntzeko 20:00ak arte jasoko dira Larramendi 11ko lokalean, [kronika@kronika.net](mailto:kronika@kronika.net) helbidean edo 943 33 08 99 telefonoan. ■

## ■ ZINEA

### 'Lasa eta Zabala', ikusleen egunean

Asteburuan *Lasa eta Zabala* pelikula arrakastatsua ikusterik izan ez dutenek gaur izango dute azken aukera. Ikusleen eguna izaki, 16:30etan jarriko dute, 2,5 euroren truke. ■

## ■ BERRIAK

### Moda pasarela, ostiralean

Berriak elkarteak antolatuta, moda pasarela izango da ostiralean Atsegindegian. Hernaniko komertzioetan eskuragai dagoen azken moda ikusteko aukera izango da 20:00etan hasita. ■

## ■ JABETZE ESKOLAK

### Ikastaroetan izen ematea, gaurtik

Jabetze Eskolen barruan sei ikastaro antolatu ditu Berdintasun Sailak. Izen ematea zabalik dago gaurtik: Plaza Feministako bulegoan, 943 33 70 17 edo [maialen-a@hernani.net](mailto:maialen-a@hernani.net). ■

## ■ HIRIGINTZA BATZORDEA

### Sei puntu aztertuko dituzte, gaur

Hirigintza Batzardea bilduko da gaur, 18:30etan Udalean. Sei punturen inguruan ariko dira. ■

## ■ TXANTXILLAKO JAIAK

# Bi nobedaderekin datoz jaiak: auzo bazkaria eta arimen kalejira

Egun osoko festa antolatu dute larunbatean, haur eta helduentzat. Krosa izango da goizeko protagonista, eta izena eman liteke dagoeneko. Bazkarirako txartelak ere salgai daude kafetegian.

IZAERA propioa duen auzoa da Txantxilla, nahiz eta nahiko berria izan. Bigarren urtez festa eguna antolatu dute. Larunbatean izango da, urriaren 25ean, eta helburu nagusia da auzotarren arteko giro ona sustatu eta elkarrekin ondo pasatzeko tartea izatea. Beraz, bertara gonbidatu nahi dituzte Txantxillako bizilagun guztiak, eta baita ere ondo pasa nahi duen edozein.

### Krosa, goizeko protagonista

Txantxilla-Santa Barbara kros herrikoia bigarren edizioak markatuko du goiza. 6,5 kilometroko ibilbidea izango dute aurretik partehartzai-leek: Alberro, Elutxeta, Saretxo, Santa Barbara, Agerreburu eta berriz ere Txantxilla. Sariak izango dira irabazle eta partehartzaileentzat; eta Santa Barbarako ermitako kanpaia lehenengo jotzen duenak ere, izango du saria. Lasterketan parte hartu nahi duenak dagoeneko eman dezake izena [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) helbidean edo Ibaimendi kirol dendan; 7 euro balio du. Egunean bertan ere izango da aukera, 10 euroan. Ondoren, txikien krosa izango da. Haurrentzako jolasak ere izango dira goizean zehar.

### Omenaldia eta bazkaria, eguerdian

Auzotarren bat omenatzea ere bada Txantxillako jaien izaeraren parte. Egurdiko 12:00etan omenduko dute Karmen Etxe-

«Garai bateko usadioa berreskuratu eta arimatxo bihurriak aterako dira larunbatean kalejiran, dultzaineroek lagunduta».

berria, 81 urtez Laubidieta etxean bizitutako auzotarra. Ondoren txupinazoa botako dute.

Aurtengo nobedadeetako bat auzotarren bazkaria izango da. Jai Batzardeak azaldu duenez, joan den urteko esperientzia ikusita, beharra ikusi du: «halako tartetxoren baten beharra ikusi dugu, atsedena hartu eta umore giroan gozatzeko». Bazkarirako txartelak salgai daude Txantxillako kafetegian, 11 euroan. Menua da: entsalada, paella, bertako gazta eta edaria. Haurrek paella izango dute, eta tiketak 5 euro balio dute. Erosteke azken eguna asteazkena izango da. Jai batzardeak azaldu duenez, bazkaria zein arratsaldeko txokolatada egokiak izango dira zeliakoentzat.

### Arimen kalejira, arratsaldean

Mus eta toka txapelketak arratsaldean jokatu dira; eta umeentzat Apaxi kontalaria ere, izango da. Arratsaldeko berezitasuna ordea Arimen kalejira izango da. Festak Santu Guztien Egunaren eta Hilan Egunaren aurreko asteburuan izaten dira, eta Txantxilla hilerria zen XX. mende hasiera arte. Jai batzardeak hori kontuan izan eta



Krosean aurrez izena emateko: '[www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)' edo Ibai Mendi.

garai bateko usadioa berreskuratu nahi izan du: «urriaren 31n, haurrek kalabazak hustu, begiak, ahoa eta sudurrak marraztu eta kandela bat jartzen zuten barruan. Kalera ateratzen zuten kutsu paganoa duen gau horretan, jendea ikaratzera. Aintzinako usadio hori ahaztu, eta orain festa amerikar bat kopiatzen hasi gara konplexuz beteta, konturatu gabe gurea ere bada». Larunbatean arimatxo bihurriak aterako dira kalejiran, dultzaineroek lagunduta, kalabaza esku batean eta maskuria eta erratza bestean: «jendea izutuko dute, eta hala, lotsak, tristurak eta preokupazioak uxatu, kolpez kolpe, urte osoko beldurrak eta rollo txarrak soinetik kenduko dituzte». ■

### URRIAK 24, OSTIRALA:

20:00 Pintxo-potea.

### URRIAK 25, LARUNBATA:

9:00 Diana txistulariekin

9:30 II. Txantxilla-Santa Barbara-Txantxilla krosa (helduen irteera)

10:30 Krosa (haurren irteera)

11:00 Haurrentzako jolasak

12:00 Omenaldia Karmen Etxeberriari eta txupinazoa

12:15 Erraldi eta buruhandiak

12:30 Sagardo dastaketa eta pintxoak

14:30 Auzo bazkaria Bazkalostean

Rafafa magoaren ikuskizuna.

16:30 Mus txapelketa Txantxilla kafetegian

17:00 Toka txapelketa

17:00 Txokolatada

17:30 Apaxi Kontalariren

emanaldia haurrentzat

18:00 Arimen Kalejira

dultzaineroekin

19:00 Patata Tortilla lehiaketa eta bertsolariak.

21:30 Erromeria Itzarturekin

00:00 Azken traka eta suak

ANTZIOLA, 3  
Tel. 943 55 17 91  
HERNANI

**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA

JOSU **ALKORTA**  
harategia

**JABUGORIK ONEN-  
-BENETAKO JABUGORII**

Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

**Garayar**  
autobusak

Sorgintzulo auzoa, Hernani (Kipuzkoa)  
Tel. 943 55 66 58 Fax 943 33 12 08  
[mgarayar@garayar.net](http://mgarayar.garayar.net)

Zerbitzu diskrezionalak (Eskolarrak)

**Autobus zerbitzuak**  
Linea erregularak

•Hernani •Donostia  
•Aiete •Umela •Andoain

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbeta 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURADIA**  
**GAUR** Giro eguzkitsua segida izango du gaur. Goi mailako laino batzuk izango dira. Tenperatura ez da aldaketa askorik espero: Min.15° / Max.26°  
**BIHAR** Eguzkia izango da nagusi aurreneko orduetan; aldatzea espero da ordea, eta lainoak ugaritzea. Temperatura, freskoago: Min.12° / Max.21° (euskaime)

## ■ PENTSIONISTAK GEPE

# Pentsioen egoera azaltzeko hitzaldia antolatu dute bihar

Hitzaldia Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteak antolatu du. Biteri kultur etxean izango da, bihar, goizeko 10:00etan.

ZEIN da pentsioen gaur egungo egoera? Eta zein dira aurreikusitako daitezkeen arazo larriak? Gaur egungo egoerari buruz, eta etorkizunera begira gertatu litekeenaren inguruan

hitz egingo du bihar Eduardo Garcia Elosuak. Gipuzkoako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kidea da Eduardo Garcia. Hitzaldia GEPE elkarteak antolatu du, Gipuzkoako Erre-

tiratu eta Pentsionisten elkarteak. Irekia da, eta honen berri izan nahi duten herritar guztiak gonbidatu dituzte. Hitzaldia bihar, 10:00etan, Biteri kultur etxean. ■

## ■ III. BAKAILAO ASTEA



### Bakailuak arrakasta, aste osoan zehar

Hirugarren urtez Bakailao Astea antolatu dute Hernanin. Atzo zuten egun haundietako bat, Bakailao Festa, eta aste osoan zehar gertatu den moduan, jendetza gerturatu zen Atsegindegira. Asko izan ziren *Bakailaoa pil-pilean* lehiaketan parte hartzeraz animatu zirenak. Eta baita ere, bakailu piezaren bat erosi eta etxean goxo-goxoa egiteko asmoz eraman zutenak. ■

## ■ VIII. ARGAZKI RALLYA



### Momentu guztiak, harrapatua

Ezer gutxi gertatuko zen atzo herrian, Argazki Rallyko argazkilariek harrapatu ez zutena. Lau ordutan ibili ziren Bakailao Festan, monumentuei argazkiak atereaz... Argazkiak urriaren 22ra arte entregatu ditzaizkete, eta epaimahaiaren erabakia jakinda, ikusgai jarriko dituzte. Sari bana-keta azaroaren 7an egingo dute.

## ■ ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK

FUTBOLA			ESKU PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa		
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Hondarribia	2-0	Nagusiak Elite	Ilurpe/Ojuel-Lizeaga	22-18
Mut. Erreg. Gor.	Alema-Hernani	8-1	Nagusiak	Iontz San Sebastian/Aurera Salaz	5-22
Nsk. Euskal Liga	Beasain-Hernani	5-2	Nagusiak 1.	Murumendi/Urkiu-Albana	22-8
Jub. Nsk.	Hernani-Intxaurdi	3-0	Nagusiak 2.	Lizardi/Albana-Etxegolen	22-7
Jub. Mut. Eu.	Hernani-Antiguoko	0-0	Jubenilak 2.	Zaqui Ibari/Cisneros-Rodriguez	22-4
Jub. Mut. Oh.	Touring-Hernani	4-0	Jubenilak 2.	Pogoda-Uruzola/Arnasate	17-22
Kad. Nsk. Oh.	Urnietza-Hernani	2-2	Kadeteak 1.	Agirre-Lazkano/Inbaurte	9-22
Kad. Mut. Oh.	Tolosa-Hernani	3-1	Kadeteak 3.	Ezeiza-Insausti/Jumista	20-22
Kad. Mut. 1.	Sp. Herena-Hernani	1-2	Infantilak 1.	Epie/Blaiz Inlondo	2-0
Inf. Mut. Oh.	Hernani-Bilabona	5-3	Infantilak 1.	Alema/Mikel Lasa	1-2
Inf. Mut. Txikiak	Ekintza-Hernani	0-5	Infantilak 1.	Añorga/Jagoba Garmendia	2-1
Inf. Mut. 1.	Hernani-Ekintza	0-5	Infantilak 2.	Xabier Salaberria/Zestoa	1-2
Inf. Nsk. Fut. B	San Patroio-Hernani	1-6	Infantilak 2.	Ibai Ezeiza/Añorga	2-1
Inf. Nsk. Fut. B	Avular-Hernani	0-4	Infantilak 2.	Ander Leiza/Gazteleku	0-2
Aleb. Mut.	Vasconia-Hernani	4-1	Infantilak 2.	Gazteleku/Oihan Zugasti	0-2
<b>ESKUBALOA</b>			Alebinak	Oñatez Insausti/Zumaiola	2-0
Infantilak	Hernani-Tolosa	5-32	Alebinak	Anartz Olarribia/Diarpe	2-0
<b>SASKIBALOA</b>			Alebinak	Cispe/Xabier Apaolaza	2-0
Jubenil 1.	Oñate-Hernani	52-88	Alebinak	Añorga/Unax Utzi	2-1
Infantilak	Talke Beñate-Hernani	60-19	<b>ERREMONTEA</b>		
<b>ERRUGBIA</b>			1go partidua	Segurota-Oñate/Juanenea-Zubiri	29-35
Ohorezko Maila	Hernani-Gernika	14-19	2. partidua	Uterga-Ion/Mabin III-San Miguel	31-40
Senior B Eusk. Tx.	Hernani-Ordizia	5-54	3. partidua	Eduarra-Barnetxea IV/Euseberria IV-Euseberria III	29-40
Kadete (sub18)	Gernika-Hernani	0-93	4. partidua	Otegi-Agmezabala/Eduarra II-Aizpuru III	24-30
Infantil (sub16)	Gernika-Hernani	0-83	<b>WATERPOLOA</b>		
			Seniorrak	Hernani-Oñate Bidasoa B	9-8

## ■ FUTBOLA

**Beasain jaun eta jabe, Hernaniren kontra**  
 Hernanik ezin izan dio bolada onari eutsi Emakumezkoen ligan. Beasainen kontra neurtu zituen indarrak, eta goierritarrak izan ziren nagusi 5-2. Zarautz hartuko dute etxean, larunbatean. ■

### Mariskadako zenbaki saritua: 948a.

Mariskada zozketatzen du CD Hernanik astebururo. Aste honetako zenbaki saritua, 948a, Tripontzi tabernan saldu da. ■

## ■ WATERPOLOA

### Justu-justu, Hernani garaile

Denboraldiko bigarren partidua jokatu zuen Hernanik Bidasoa XXII B taldearen kontra. Markagailuak erakutsi bezala, berdindua joan zen partidua, baina azkenean etxeok izan ziren nagusi 9-8. ■

## ■ ESKUBALOA

### Infantilek ezin, aurreneko partiduan

Denboraldiko aurreneko partidua jokatu dute asteburuan Hernaniko infantilek. Tolosa CF taldea izan zuten aurkari, eta 32-5 galdu zuten. Tolosarrek dominatu zuten partidua hasieratik. Bigarren urteko taldea da, eta esperientzia eta gola egiteko duten erraztasuna nabaritu egin zen. Hernaniarrek asteburuan dute burua, dagoeneko. ■

## ■ MERKATARITZA

### Hernaniko lau komertziori botoa emateko aukera

Gipuzkoako Bazkudearen Merkataritza Taldeak lehiaketa berria jarri du martxan. Eskualdeka, komertzio edo denda bat harribitxi izendatu nahi du. Hernanitik lau aurkeztu dira: Ikusi Makusi, JF Cocinas, Galerías Buen Precio eta D-Kora. Irabazlea boto bidez aukeratu da, [10bitxiak.blogspot.com](http://10bitxiak.blogspot.com) web orrian. ■

## IRAGARKI MERKEAK

**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

**Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

# biokbi optika

Alejandro Alcibar  
Centro Optométrico  
12244 204

Antziola, 14  
Tel.: 943 33 68 86

---

## ESKAITZA %20a

Beharapena MONTURA GUZTIAN

**ZATUZ ETA AUKERA EZAZU GUSTUKOENA**

URRIAREN 10etik AZAROAREN 15era

Kristal antireflejagardun betazuneko osas oginez

\*Promozio hau ezin zaio gelitu Berriak txartelaren deskontuarekin.

---

## UMEENTZAT ERE, ESKOLARA BUELTA!

Beharapena MONTURA GUZTIAN

%20a

Etor zaitez gure graduatutako betazuneko kolezioa ikustera: Spiderman, Lulu, Ray Ban eta Amarte. Eta betazuneko oso baten erosketarekin Buena Vista kapitainaren ipuin bat lortuko duzue!